

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2003ko MARTXOA

Bidaiarien sarrerak %7 eta gaurdiak %12 gutxitu dira 2003ko martxoan

Bidaiarien eta gaurdien jaitsieran kontuan hartu behar da, urte arteko konparazioa egiterakoan, 2002ko Aste Santua martxoan izan zela.

Emaitzak interpretatzerakoan kontuan hartu behar da ez daukagula informazio homogeneorik bidaiarien sarreraren eta gaurdien urte arteko bilakaera neurtzeko, 2002an Aste Santua martxoan izan zelako eta aurten apirilean. Beraz, bilakaera deskribatzailea besterik ez da emango martxoko urte arteko emaitzetan.

2003ko martxoan, 121.163 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 8.500 sarrera gutxiago, hau da, %7ko jaitsiera, EUSTATEk eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrek eragin desberdina izan dute hiru herrialdeetan. Bizkaian, Aste Santuaren inguruan aipatutakoa kontuan hartuta ere, egonkor mantendu dira (%0), Araban %5 jaitsi dira eta Gipuzkoan jaitsiera nabarmenagoa izan da, %13koa, hain zuzen ere.

Estatuko bidaiarien sarrerak %5 gutxitu dira Euskal AE osoan. Atzerriko bidaiarien kopurua, berriz, %11 urritu da. Estatuko bidaiariak %6 gehitu dira Bizkaian, eta jaitsi egin dira bai Araban (%-6) bai Gipuzkoan (%-15). Atzerriko bisitarien kopurua jaitsi egin da hiru herrialdeetan: Araban (%-3), Bizkaian (%-17) eta Gipuzkoan (%-6).

2003ko martxoan, 214.992 gaurdi erregistratu dira. Horrenbestez, aurreko urteko hil berean baino ia 39.000 gutxiago izan dira, hau da, %12 gutxitu dira. Egindako gaurdien kopurua herrialde guztietan jaitsi da, intentsitateak desberdinak izan badira ere: %5 jaitsi da Bizkaian, eta Araban eta Gipuzkoan, nabarmenagoak izan dira jaitsierak, %-16 eta %-17 gutxitu baitira, hurrenez hurren.

Bidaiarien batez besteko egonaldia, iazko martxoko 1,88 egunetatik aurtengo martxoko 1,77 egunetara laburtu da. Laburtze horrek hiru herrialdeei eragin die. Plazen betetze-maila ere jaitsi egin da, 2002ko martxoko %46,57tik aurtengo martxoko %39,30era.

Nekazalturismoa: %20 jaitsi dira bidaiarien sarrerak eta %36 gaurdiak.

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 6.154 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2003ko martxoan, aurreko urteko hil berean baino %20 gutxiago: %33 urritu dira Araban, %26 Bizkaian, eta %10 Gipuzkoan. Euskal AE osoan erregistratutako jaitsieraren eragileak estatuko bisitariak (%-21) zein atzerrikoak (%-10) izan dira.

Nekazalturismoaren sektorean 11.393 gaurdi egin dituzte, 2002ko martxoan baino %36 gutxiago eta herrialde guztietan jaitsi dira nabarmen: Araban %51, Bizkaian %43 Gipuzkoan %24.

Bidaiariko batez besteko egonaldia ere laburtu egin da, iazko martxoko 2,31 egunetatik aurtengo martxoko 1,85 egunetara. Hau da, %20 murriztu dira. Ildo berean, plazen betetze-maila %40 jaitsi da.

Berriro ere esan behar da urte arteko konparazioa distortsionatuta ikusten dela 2002an Aste Santua martxoan izan zelako.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE				ARABA				BIZKAIA				GIPUZKOA							
03/2003	%	03/2002	%	Δ%	03/2003	%	03/2002	%	Δ%	03/2003	%	03/2002	%	Δ%	03/2003	%	03/2002	%	Δ%

HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK

BIDA/ARI-SARRERAK	121.163	100	129.734	100	-7	22.687	100	23.926	100	-5	49.567	100	49.712	100	0	48.909	100	56.096	100	-13
Estatukoak	94.098	78	99.469	77	-5	18.548	82	19.645	82	-6	38.510	78	36.326	73	6	37.040	76	43.498	78	-15
Atzerrikoak	27.065	22	30.265	23	-11	4.139	18	4.281	18	-3	11.057	22	13.386	27	-17	11.869	24	12.598	22	-6
GAUALDIAK	214.992	100	243.861	100	-12	36.324	100	43.192	100	-16	93.227	100	97.987	100	-5	85.441	100	102.682	100	-17
Estatukoak	159.938	74	184.640	76	-13	29.674	82	36.227	84	-18	65.906	71	68.315	70	-4	64.358	75	80.098	78	-20
Atzerrikoak	55.054	26	59.221	24	-7	6.650	18	6.965	16	-5	27.321	29	29.672	30	-8	21.083	25	22.584	22	-7
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,77		1,88		-6	1,60		1,81		-12	1,88		1,97		-5	1,75		1,83		-4
PLAZAKO BETETZE MAILA	39,30		46,57		-16	36,64		50,41		-27	41,72		46,65		-11	38,06		45,05		-16

NEKAZAL TURISMOA

BIDA/ARI-SARRERAK	6.154	100	7.686	100	-20	982	100	1.474	100	-33	1.921	100	2.602	100	-26	3.251	100	3.610	100	-10
Estatukoak	5.783	94	7.275	95	-21	952	97	1.444	98	-34	1.877	98	2.437	94	-23	2.954	91	3.394	94	-13
Atzerrikoak	371	6	411	5	-10	30	3	30	2	0	44	2	165	6	-73	297	9	216	6	38
GAUALDIAK	11.393	100	17.792	100	-36	1.729	100	3.530	100	-51	3.592	100	6.310	100	-43	6.072	100	7.952	100	-24
Estatukoak	10.567	93	16.639	94	-36	1.684	97	3.383	96	-50	3.477	97	5.714	91	-39	5.406	89	7.542	95	-28
Atzerrikoak	826	7	1.153	6	-28	45	3	147	4	-69	115	3	596	9	-81	666	11	410	5	62
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,85		2,31		-20	1,76		2,39		-26	1,87		2,43		-23	1,87		2,20		-15
PLAZAKO BETETZE MAILA	16,74		28,09		-40	13,67		30,28		-55	16,99		30,98		-45	17,73		25,40		-30

Iturria: EUSTAT